Zuk zer dezu, Arantzazu? Hamaikatxo aldiz entzuna duzu, eta seguruenik zuk ere abestua zenbait aldiz, Arantzazuko kanta hori: “Zuk zer dezu, Arantzazu? / Amets-kabi, otoitz-leku...”. Bada, Salbatore Mitxelena sorturiko kanta duzu; 1947an aldizkari honetan argitaratu zuen, doinu eta guzti.

Horren ondoren, ordea, beste kanta ugari sortu zituen Arantzazuri buruz eta Arantzazun abestekoak, olerkia berak idatziz eta herri-doinu aukeraturen bati egokituz. Horrelako hogeitaukeratuak, hain zuzen, *Ogei kanta Arantzazuko* liburuxkan bildu zituen; horietako gehienak entzunak dituzu agian Arantzazun bertan: “Zure errukizko begiak, Ama,”

“Errodrigotxo Baltzategiko”; “Zazpi ahizpatxo dira euskaldun Birjinak”, etab.

1919an jaio zen Salbatore Mitxelena Zarauzko Etxebeltz baserrian; bete berria dugu, beraz, haren jaiotzako mendeurrena. Bazituen bi osaba Arantzazuko fraide frantziskotar, etxe berean jaiotak; osabei jarraituz edo, berak ere frantziskotar izatea aukeratu zuen. Arantzazuko kolegiara joanda, apaizetarako ikasketa-ibilbide osoa bete zuen (Forua, Zarautz, Erriberri eta berriro Arantzazu). Teologiako ikasketak burutu ondoren, 1943ko abenduan apaiztu zen; eta urtebetez Burgosko La Aguilera-n pastoraltzako ikastaroa eginda, Donostiako komentura bidali zuten. Hor bizi izan zan 1954ra arte,

Sin Lugar a dudas, Salvatore Mitxelena ha sido el cantador de Arantzazu. Nació en 1919 en el caserío Etxebeltz de Zarautz. Se ordenó en 1943. Después de estudiar pastoral durante un año en la Aguilera (Burgos), su primer destino fue San Sebastián (1944-1954). Luego se dedicó a las misiones en Sudamérica, Centroamérica y Cuba. En 1962 le destinan a Suiza, como cura de emigrantes españoles. Murió en 1965 a los 46 años de edad.

En 1949 publicó *Arantzazu euskal-poema* la primera obra literaria que se publicaba después de la Guerra Civil en Euskal Herria. Suyo es también *Ama semeak*, un ensayo sobre la historia de Arantzazu (1952). Fue un gran estudioso de las baladas y canciones antiguas sobre Arantzazu recopiladas desde el siglo XV.

bertako elizako apaiz-lanetan eta Gipuzkoako herrietan predikari eta misiolari. Hamar urte horietanxe burutu zituen era berean Arantzazuri buruzko bere liburu nagusiak eta Arantzazuko kanta zaharrei buruzko ikerlana. 1954ean Ameriketara aldatu zen, Montevideo-ra, eta Hego Amerika eta Erdi Amerikako herrialde hainbatetan misiolari jardun zen, azkenik Kubako La Habana-n bizitzen jarri zen arte (1959); denbora gutxirako, ordea, 1961an utzi behar izan baitzuen irla, Fidel Kastroren erregimenak egotzita; Kolonbiara aldatu zen aurrenik, baina 1962n Euskal Herrira itzuli zen; urte berean Suitzara joan zen, hango emigrante espainiarren apaiz eta zerbitzuko. Hiru urte geroago, ordea, 1965eko abenduan, Suitzako La Chaux-de-Fonds herrian hil zen, 46 urte zituela.

Mitxelena eta Arantzazu aldizkaria

Geroxeago azalduko dizkizut Mitxelenaren Arantzazuri buruzko liburuak; aurretik ezagutzekoa da *Arantzazu* aldizkari honetan hark izan zuen lekua. 60 bat aldiz behintzat ageri dira Mitxelenaren izenpeko idazlanak: aldizkarirako berak idatzitakoak edota hura hil ondoren aldizkariak berak eskainitako haren olerkiak. 1945ean argitaratu zuen bere lehen olerkia, Arantzazuko Andre Mariaren aurkikuntza kantatuz:

*“Oi udaberriz Aloña-maldan
elorriaren lorea!
Min du erreka utzi beharra
halako txoko maitea.
¡Zorionduna txoko hartara
iristen den artaldea!*

Bertan argitaratu zituen lehenik bere Arantzazuko kanta ezagunak, doinu eta guzti; “Zuk zer dezu Arantzazu” aurrena (1947); gero horiek denak eta beste zenbait *Ogei kanta Arantzazuko* liburuxkan bilduko zituen (1952).

Arantzazu: Mitxelenaren liburuak

Mutikotan hasi zen Mitxelena euskaraz olerkiak idazten. 16 urte zituela idatzi zuen “Oroi-lari”, seminarioko *Forua* barne-aldizkarian argitaratu zuena. 17 urte zituenean, Zarautzen nobizio zelarik, bere lehen profesio hiru botoak –“hiru loreak”– Arantzazuko Andre Mariari eskaini zizkion olerki-otoitzean; honetara dira azken bi ahapaldiak:

*Arantzazuko arantza gainean
arrosa zara, Andre Mari,
t’arantzak ez dizu zauri...
Hona hemen arbazta hirukoitza: hiru
“voto”-en irudigarri.
Ez daitezten inoiz zauri,
zaite lorezain Zu: tori!*

Gaztetan bestelako olerki asko ere idatzi zituen, bi liburutan argitaratuta daudenak: *Arraun eta amets* eta *Aberriak min dit*. Baina hemen gehienbat Arantzazuri buruzko Mitxelenaren liburuak aurkeztea dagokigu. 1949an argitaratu zuen bere poema-libururik ezagunena: *Arantzazu. Euskal poema*. Arantzazuko misterioa eta kondaira kantatzen ditu bertan. Espainiako Gerra Zibilaren ondoren Hego Euskal Herrian euskaraz argitaraturiko lehen literatura-liburua, harrera oso ona eta oihartzun handia izan zuena. Urte berean Euskaltzain urgazle izendatu zuten Mitxelena. Bi urte geroago (1951) argitaratu



zuen *Ama-semeak Arantzazuko kondairan* saiakera historiko zabala; eta hurrengo urtean (1952) argitaratu zuen gorago aipatu dudana *Ogei kanta Arantzazuko abesti-liburuxka*. Era berean Arantzazuri buruzkoztzat jotzekoak dira


argitaratu gabe utzi zituen *Herri bat gurutzibidean* eta *Confixus* idazlan dramatikoak ere, non Arantzazu eta Euskal Herria zorikide ageri baitira.

Gutziz bestelako idazlana du *Unamuno etaabendats* saiakera, 1956an argitaratua. Mitxelenaren idazlan guztiak bilduta eta argitaratuta daude bi tomo loditan: *Idazlan guztiak-I* (1977) eta *Idazlan guztiak-II* (1984), beraren adiskide Karmelo Iturria eta Jose Antonio Gandariasen ardura pean.



Poeta eta kantaria


Poesia eta kantua oso lotuta doaz Arantzazuren historian. Bertan sorturiko poesia neurri handian izan da kantatzekoa eta kantatua. Mitxelena bera poeta eta kantari zen. Bere



Arantzazu. Euskal Poema kantatzekoa da oro har; horretarako atalez atal doinuak ere iradokita utzi zituen, gehienetan herri-kanta ezagunetatik hartuak. Eranskina ere ipini zion liburuari, hainbat doinu jasotzen duena. Kanta liburua dela esan genezake, bada, *Poema*: Arantzazuren istorioa eta misterioa kantatzen duena.

Liburu horretatik atera zuen, hain zuzen ere, bere *Ogei kanta Arantzazuko* abesti-liburuxka aipatua, *Poemaren* sintesi txikitat har daitekeena. Arantzazuren inguruko olerki- eta abesti-mugimendua ere piztu zuen Mitxelenak, Arantzazuko Teologiako ikasleena, beste nonbait "1949ko belaunaldia" deitu dudana. Bera izan zen horren inspiratzaile eta eragilea, nabaria denez. Belaunaldiaren testigu apartekoa da *Arantzazukoak* izeneko abesti koadernoak, Arantzazuko artxiboan egon dena; 2018an ikusi du argia (doinu eta testu) *Arantzazuko Abesti Bilduma* liburu mardulean, eta *Arantzazu dut kantagai* (ADK) liburu saileko V. tomoan (2019) daude bilduta abestion testu guztiak.

ADK liburu sail horretan ez du Mitxelenak bere olerkien antologia-tomo berezirik; sartzekotan *Arantzazu* poema osoa sartu behar litzateke; baina hori argitaratuta dago bi aldiz aparteko liburuan. Dena dela, ADK tomo ia guztietan ageri da Mitxelena. Literatura Arantzazuarraren historian (1. liburukia) epigrafe apartekoa du, jakina; Arantzazuko



baladen eta koplak zaharren liburukian (II.a) ere ageri zaigu, horrelakoen biltzaile eta ikertzaile; V. liburukian ere baditu Arantzazuri buruzko bi olerki, bere *Poemantik* apartekoak; VI.lean –Arantzazuko kanta berriak–, bera dugu kanta berrien sortzaile nagusia; VII. an ere –Gandiagaren olerki antologian– Mitxelenaren izena behin eta berriro dator aipatua sarreran; azkenik, IX. liburukia Mitxelenak berak Arantzazuko kanta zahar edo baladei buruz idatzitako edizio kritikoa besterik ez da.

Herri-kanta zahar ugarietatik ARANTZAZU poema handira


Mitxelenaren *Arantzazu* poema, eta Arantzazuri buruzko beraren olerkiak, idazlanak eta kantak, ezin dira ulertu Arantzazuko balada edo herri-kanta zaharrak, XV. mendetik hasita ia gaur arte herritarrek abestu izan dituztenak, eta Arantzazuko artxiboan jasota daude, kontuan hartu gabe.

Artxibo horretan bazen –eta bada– gaur egun *Romances euskéricos de Arantzazu* deituriko koadernoak, eta Mitxelenak “Arantzazu artxiboko kanta-bilduma” deitu zuena; bertan daude jasota eta idatzita Arantzazuko kanta zahar nagusiak eta horien aldaerak, eta bestelako bertso-sorta ugari ere bai. Hasi-eran, koaderno hura eskura ipini ziotenean ez omen zion Mitxelenak balio berezirik aurkitu, eta apalean baztertuta utzi omen zuen testu “pilo” hura; baina gero, Lekuonaren *Literatura oral euskérica* irakurri ondoren, berriro ikusi, irakurri eta aztertuta, liluraturik geratu omen

zen hango kantez. Honetara aitortzen digu poetak berak: “Gerora, Imanol Lekuonaren “Literatura oral euskérica”k piztuta, maitasuna eta begikoa hartu nien herri-kopla txepelenei ere. Eta orduan, apal bazterreko “piloaz” oroitu nintzenean eta bigarren begiratua eman nienean, irribarre goxoarekin maitasun-harrera beroena para nion nere baitan. Begitan bezala bihotz-labea nerabilzkiela, herri-poesi baliotsuak iruditu zitzaizkidan, ordura arte nik egin nituanean aldean esanahi luzekoak, zoragarriak...”

Ondoren horrelako balada ta kanten biltzaile eta ikertzaile sutsu bihurtu zen bera. Gaur egun koaderno bereko zenbait kanta zahar, Mitxelenak berak herritarrengandik jasotakoak dira. Baina batez ere berak idatzitako *Arantzazu* poema handiaren eta berak sorturiko Arantzazuko bestelako kanten iturri nagusizat hartu zituen herri-kantok. *Arantzazu* poema-liburuaren atarian, hori Andre Mariari eskaintzean, honetara aitortu zuen: “Arantzazuko Ama: tori zuretzat, ainbeste zor dizun seme honek eskaintzen dizun lana. Ez da nire. Zure Herriarena baizik. Gizaldi gizaldi zure babesean eta zuri kantari bizi izandako Euskal Herri zaharrak abestu izan dizun poema duzu, nik orain handik eta hemendik osatua, hilzorian zeuden pusketatxoekin gorputz bat eginda. Kanta zahar eta elezahar horiei darien poesi-lurruna eta kristautasun sendoa bildu eta, kondaira lagun, hitzez jantzi: besterik egin al dizut gero?”

Mitxelenaren beraren aitorten horixe aurkitu dut egokiena, haren jaiotzako mendeurrenaren oroitzapenetan idatzitako lerro hauen amaieratzat.



Cada 6 de enero al volver de casa de mis padres

Egoitz Zabala

Urtarrilean, zorionen ordeztu, merkealdia. Gero eta jende gehiago poztu da Gabon-festak bukatzen direnean. Kristauok zerbait gaizki egiten ari garena seinale.

Belengo izarrak Berri Ona argitu zuen, eta Jainkoa zein pertsonengan gorpuzten den adierazten du gaur egun ere: hauskorak, pobreak, gaixoak, zaharrak, migranteak, gaixotasun mentala dutenak... Caritaseko jendea, Aita Mennikoak, 'círculo del silencio'koak, mundu justuago baten alde lan egiten dutenak, horiek guztiak dira izar, Jainkoa non dagoen erakusten baitigute.

Cada 6 de enero al volver de casa de mi padre y madre, después de la última comida copiosa (no estoy en el grupo de las 110000 hombre y mujeres que en Euskadi están en el umbral del empobrecimiento) siempre me invade el mismo sentimiento de pesadez pero a la vez de esperanza. En el camino del coche a casa no son muchas las personas con las que me cruzo pero escucho conversaciones con la frase del día... POR FIN SE TERMINAN LAS FIESTAS... Como cristiano pienso que algo hemos hecho mal, algo hemos transmitido mal al escuchar dicha frase que transmite alegría por el fin de la Navidad.

Continuo caminando, ya son pocas las luces que quedan en las calles, la noche es más oscura que las anteriores, más silenciosa, y el frío del invierno hace que uno asemeje más la paz que siento ahora, a aquella noche que veníamos celebrando, donde el hijo de Dios nació empobrecido, fuera de la ciudad, en un establo (en la posada no había sitio para ellos... para otras personas quizá sí... pero para esta joven pareja no... ¿no os suena la historia?). Creo que este anochecer se acerca más aquella noche que nacía Jesús siendo anunciado por la luz de la estrella o el gloria del ángel, primero a las personas más empobrecidas (encarnados en aquellos pastores) y

luego a todo el mundo que quisiera escuchar, sentir y vivir aquel revolucionario mensaje que traía la libertad y la esperanza a tantos y tantas.

Me detengo y observo que muchos de los escaparates ya han cambiado el cartel de ZORIONAK por el de REBAJAS - BEHERAPE-NAK, todo parece que ha quedado atrás y en la vorágine del consumismo (que cambia de nombre, REBAJAS) puedo distraerme del compromiso que cada Navidad como cristiano debería renovar, el de convertir mi vida en pesebre para acoger a aquellos que la estrella junto al ángel hoy me siguen señalando a las personas en las que Dios se vuelve a encarnar.

Llego a casa y observo al niño de mi pesebre y me fijo también en la estrella que puse al inicio del adviento. La estrella con su luz es la que guió a los magos hasta el pesebre. Su luz hoy sigue brillando aunque muchas nubes a veces no nos dejen verla. Necesito de ti, estrella, necesito tu luz para que me sigas guiando hacia ese niño que se encarna en muchas personas olvidadas, descartadas e invisibles.

Necesito que mi Iglesia siga siendo estrella que me acerque a ese Belén que sigue interpeándonos.



Iturria: monicore, #Pixabay

En este silencio de la noche de Reyes, con el niño de cerámica en mis manos doy gracias por tantas estrellas que hoy me sirguen acercando a ti, Dios frágil, pobre, niña, anciano, enferma, mujer, hombre...

Estrellas sois en mi Iglesia todas las personas que en Caritas acogéis y nos señaláis que hoy el niño no llega a fin de mes, que hoy el niño con 80 años no puede pagar la calefacción porque con su pensión justo puede comer.

Gracias también al movimiento *círculos del silencio* que una vez al mes os convertís en estrella que señala el drama de las personas migrantes. Recordáis que el niño viaja en patera, que ese niño Dios cae en la trata, en la explotación sexual. Con vuestro silencio convertido en luz nos recordáis que hoy el niño se ahoga en el mediterráneo, que vive hacinado en campos de refugiados de Grecia o que corre con su familia de las bombas en Siria.

Estrellas que en tantas comunidades religiosas que junto a tantos laicos y laicas de América Latina, África y Asia nos recordáis que nuestro niño defiende la madre tierra, que nuestro niño es diverso, plural y que todos los colores y acentos son rasgos suyos.

Hoy señaláis muchos en mi Iglesia que el niño está enfermo y vive solo. Os detenéis en barrios olvidados de nuestras ciudades. En cada comedor social sea enero o marzo la estrella de la Navidad nos recuerda que el niño hoy en Euskadi pasa hambre. Y como no, mañana al ir al hospital Aita Menni como cada día, cada uno de mis compañeras y compañeros, cada persona voluntaria y cada hermana seréis estrella para esta sociedad recordándonos que hoy Dios tiene rostro de persona con enfermedad mental.

Somos muchas y muchos en nuestra Iglesia que desde el anonimato intentamos ser estrellas, a veces luminosas, más brillantes o menos, pero que queremos señalar que otro mundo más justo es posible. Hombres y mujeres que queremos convertir nuestra Iglesia en un gran pesebre donde nadie se sienta fuera, donde como en aquel portal de Belén todos y todas puedan acercarse adorar al niño y sentir su consuelo.

Feliz 2020 para todos y todas, repito para todos y todas!! Urte berri on guztiontzat, benetan guztiontzat!!

Arantzazu

Bitoriano Gandiagaren Begitan



Oteizaren itzala

1 996ko maiatzaren 4an omenaldia eskaini zion Eusko Ikaskuntzak Oteizari Oñati-ko Unibertsitatean, eta Manuel Lekuona saria eman zion. Laudoriozko hitzaldien artean, Bitoriano Gandiagari eskatu zioten berea egiteko. "Maisuaren itzala" ipini zion titulu bere hitzaldiari. Bere olerkiak irakurri zituen tartean; lehendik argitaratuak, bat edo beste; hemengo hau, omenaldirako paratua, hitzaldiaren azkenean irakurri zuen.

Honetara idatzi zion Gandiagak Oteizari berari, bere azken gutunean, hiltorian zegoela:

PENTSAMENDUAREN
eta egitearen
abangoardian
Oteitza,
bere garaiko
eskultore
konprometitu
eta balio unibertsalekoa.

Zentzu erlijioso
handi baten jabe
Oteitza,
landu dituen
harri blokeen tamainako
hitzak dituena.

Arantzazuko
basilikaren frisoko
harrizko poemaren autore
Oteitza.

"Tú has sido un instrumento providencial de Arantzazu. Tú has influido en el resto de los artistas que han obrado en este lugar, sobre todo en Saenz de Oiza quien jamás escondió tu magisterio y dirección"

Gandiagarekin batera, gogoz egiten dio artista handiari bere aitortpena Arantzazu aldikari honek, hark bere Arantzazuko obra burutu zueneko 50. urteurrena gogoratu eta ospatua dugun honetan. Bego laudorio eta omenalditxo hau, azken hilabeteotan eskaini dizkioten besteekin batera.



«Bizitzan gidatu eta poztu nauten balioak Arantzazuk eman dizkit»

JOXE AZURMENDI

El pasado mes de Diciembre se celebró en Donostia el Congreso sobre Joxe Azurmendi. Durante 3 días, más de 60 ponentes expusieron su visión sobre el pensamiento y la obra de Azurmendi, desde perspectivas muy distintas. Él, Joxe Azurmendi, que dice haberse sentido abrumado por tanta atención pública, resume así su pensamiento: "toda mi obra se sustenta en una sola idea que aprendí en Arantzazu: somos un pueblo pequeño y pobre (culturalmente) y debemos trabajar al servicio de esa gente pobre. En el fondo, la espiritualidad de San Francisco, al modo laico". Joxe Azurmendi acudió a la inauguración del Congreso y es el momento que recogen estas fotos. La entrevista se realizó días después, una vez finalizado el Congreso.

Abenduaren 11tik 13ra zure izena zeraman kongresua egin zen Donostian. Hiru egunetz, zure pentsamenduek eta ideiek sortutako ur-jauziaren harira, Euskal Herrian egon den pentsamendu tradizioaren, filosofia europarraren eta gizarteko auzi-etiko-politikoaren inguruko gogoeta egin da. Guztira hirurogei bat hizlari. Han izan zinen zu, aurkezpen-ekitaldian. Nola sentitu zinen?

Ez oso eroso. Harrituta. Inpresionatuta antolatzaileek hartu duten lanarekin. Lotsatuta. Eskertuta.

41 liburu eta 500 artíkulu baino gehiago. Euskal pentsalaririk oparoena, agian ja-

kintsuenetakoa. Hiru titular ematekotan, idatzitako horretatik guztitik zein hiru ideia azpimarratuko zenituzke?

Azken batean, nire lan guztiaren azpian ideia bat bakarra dago, Arantzazun ikasi nuena: herri txiki eta pobre bat gara, jende pobre horren zerbitzuan egin behar dugu lan. Funtsuan San Frantziskoren espiritualitatea da, nolabait modu laikoan.

Gizaberea, 1975an... Zergatik abere, eta ez piztia? Gaurko gizon-emakumeok otzan-otzanak, gizabere ez baino, maskota agian?

Gizaberearen ideiak esan gura du ez dugula aingerukerietan ibili behar. Erljiioak ez eta

politikak ere ez, eta ezta pedagogiak ere. Gizartearen eta ekonomiaren iraultzak bai, baina gizakiaren iraultzarik ez dago. Ebanjelioek ere ez dute hori lortzen kasu oso bakanetan ez bada. Lagun diezaiogun gizakiari den gizabaretxoa izatea apal-apal eramaten.

Krisian jarraitzen al du Euskal Herriak?

Bai, guk denok bezala, tradizioen mundu zaharra puskatuta, ideal berrien mundu berri bat asmatu ezinda. Krisian egotea ez da txarra, alderantziz. Beti bilaketan gaudela esan gura du. Okerrena da euskal gizartea edozein dialogo ukatzeraino dagoela puskatuta. Dialogorik gabe ez dago bilaketa zintzorik.

71an argitara emandako olerki batean gizona mixerablea dela zenion, ez baitaki begiz begi batak bestea begiratzten. Zure ustez, zer aurki dezake gizakiak bestearen begiradan?

Bestearen begiradan gizadi osoa eta norbere burua ikusten dira, pertsona bakoitzak mundu osoa eta mundu osoaren sufrimendua eta esperantza inkarnatzen duelako. Levinas filosofo existentzialista juduak gizakiaren begiradan ipintzen du etikaren oinarria. Jende hari guztiari begietara begiratu izan bali-

tzaie, haurrak, agureak, emakumeak, gaixoak, egongo ote zen Ausschwitz?

Zure lanetan behin eta berriz komunitatearen garrantzia azpimarratzen duzu, harremanen garrantzia, mundu sinboliko propio baten garrantzia... Baina nola egin hori zuk esaten duzu modura, mintzaira komunik ere ez badugu...?

Komunitate batean jaiotzen gara, komunitate baten barruan, nahiz batzuetan haren aurka, egiten dugu geure burua. Entzuten ez baldin badakigu ez dago edo alferrik dago mintzaira komunik. Beti garraisika hitz egiten badugu ere ez, politikan egiten den eran esate baterako. Elkarbizitza esijitu eta elkarbizitza arras zapuztu. Karitatearen izenean funtzionatzen zuen Inkisizioak ere. Zaintzen ez bada, desegin egiten da komunitatea. Askotan isilduz zaintzen da hobekien.

Zapalduta eta periferian. Egungo kritika eta teoria feministek mintzaira komunik eman diezagukete krisiak puskatutakoa berreraikitzeko, herria egiteko, komunitatea?

Feminismoak zer ekarriko duen ikusteko dago. Nik uste, oraingoz kritikara eta salake-



El feminismo, con su crítica y su denuncia nos ha abierto los oídos. Creo que las mujeres tienen mucho que enseñarnos a todos, todavía. Hasta ahora han tenido que luchar sobre todo por la igualdad y por la justicia. Quizá pronto podrán reivindicar la belleza de la diferencia. En cualquier caso, no soy quién para dar lecciones al feminismo.

tara mugatu da gehienbat, eta belarriak ireki dizkigu behintzat, ez da gutxi. Emakumeek oraindik asko daukatela denoi irakasteko, uste dut. Orain artean berdintasunaren alde borrokatu behar izan dute gehienbat. Justiziaren alde. Laster diferentziaren edertasuna errebindikatu ahal izango dute. Baina ez naiz inor feministei lezioak emateko.

Arantzazuko bideetan, paraje txoko eta harrietan Gandiagak jendearen istorioak ikusten zituen, herri baten aztarnak, sustraiak, historia... eta bera horren guztiaren partaide. Ba al dago komunitate beraren partaide sentiaraz gaitzakeen aztarnarik?

Bai horixe! Ohiturak, kantak, festak, penak, lana, mila gauza. Hizkuntza amankomuna batez ere. Eta askatasun gosea.

Bidea... Gandiaga eta bidea, Arantzazu bide... zein izan da Joxeren ibilbidea. Zeintzuk izan dira bideak, eta non mugarriak.

Gandiagak Naturaren edertasunetik hartu zuen bidea, poesia erlijioso zoragarria eman digu. Nik mitologiaren ederretik gehiago. Nik neure burua erlijio eta mitologia guztietako sinestuna deklaratu nuke, eta beharbada Gandiagak ere horrelako zerbait egiten du bere modura.

Begira: Zeelanda Berriko sumendi baten ez-tandaren kariak irakurri dugu hango hiru mendi jainkoak omen direla maorientzat. Etortzen da gure mutiko sasi-ilustratua eta esaten du: Jainkoa ez da existitzen. Pentsatzen dut ez digula esan nahi mendiok ez direla existitzen, baizik-eta ez direla jainkoak. Baina maorientzat mendiok existitzen dira eta jainkoak dira. Ados, ez dira ahalguztidunak, orojakileak, etab. Baina seguru al gaude Jainkoaren gure kontzeptua egokiagoa dela maoriarena baino? Mendebalean piska bat edo erabat ateistak ia denok gara, erruduna Jain-



Seguimos en crisis. Hemos roto el viejo mundo de las tradiciones y no acertamos a crear un nuevo mundo de ideales. Estar en crisis no es malo, significa que estamos en búsqueda. Lo peor en la sociedad vasca es que está tan rota, que se niega cualquier diálogo y sin diálogo no hay una búsqueda sincera.

koaren gure ideia da beharbada. Edonola ere neuri zaila egiten zait jende askoren ateismo aitortzak eta deklarazioak ulertzea. Erroman, Grezian, Egipton, jainkoak beti egon dira eta jainkoen ukatzaileak ere bai. Piramideetatik Akropolis, Kapitolio eta Arantzazuko elizaraino, zibilizazioaren historia jainkoen eta jainkoen ukoen historia da. Baiespenak eta ezesprenak biek batabestea egiten dute, batabestearekin dute zentzurik. Zeus edo Apolo gaur inork ez du ezesten, baietsi ere inork egiten ez duelako. Ezesprenak baiespen bat ezkututzen du, baiespenak zalantza bat. Filo-



En la mirada del otro podemos vernos a nosotros mismos y al mundo, porque cada ser humano encarna el sufrimiento y la esperanza del mundo entero. El filósofo judío Levinas establece el fundamento de la ética en la mirada del ser humano. Quizá si hubieran mirado a los ojos a toda aquella gente: niños, ancianos, enfermos... quizá no hubiera existido Auschwitz.

sofian badaude Jainkoaren beste kontzeptu batzuk, ikus Aristoteles, Descartes, Spinoza, Kant. Erlijioarekin eta bizitza pertsonalarekin ez dute zerikusirik. Tenplu grekoek bai. Belengo Jesusen jaiotzaren mitoak ere bai. Iruditzen zait Jainkoari buruz erlijiosoki artearen eta mitoaren mintzairan bakarrik mintza gaitzkeela. Eta mitoa, hertsiki-hertsiki, ez baiesteko eta ez ezesteko dago, harrituta entzuteko baizik, eta gure barruan sartu.

Karlos Santamariak kristautasuna gaurko mundu (post)modernoarekin uztartu nahi zuen. Gandiagak ere bere sintesia egin zuen Arantzazuko Ama birjina harrizko ikusi zuenean. Zeri heldu diozu zuk?

Egia esan, zintzilik nago eta ez dakit zeri helduta. Beharbada konfiantza bati gizadiarengan eta maite ditudan andra-gizonengan.

Santamariari helduta ere, mundua berera ekartzeko, pertsona pertsona izaten jarraitzeko, guztia kolorez eta bizitzaz betetzeko poesia behar dela diozu, haren bidez gure bizitza eta mundua transzenditzen ditugula. Azken egunak Gandiagarekin liburuaren lehen kapitulua poesia hutsa da. Zein da lehen 92 orrialde horien helburua?

Ez dut gogoan. Jakin genuenean Bitorianok ja denbora asko ez zuela mundu honetan, haren idazkiak berrirakurtzen hasi nintzen. Notak hartzen nituen. Arantzazun bisitatu edo telefonoz berarekin hitz egiten nuen bakoitzean ere notak hartzen nituen. Gandiagaren obrak haren aitortzak dira, haien alboan neure aitortzak gehitzen nituen, aparte. Trantze hartan nik berari esan ezin nizkionak, eta berari entzunez niri burura zetozkidanak. Izan ere Gandiagak bide bat ibili du, nik beste bat. Aipatzen duzun liburua nota horien bilduma da ordena pixka bat jarrita. Ez nuen plan jakin bat, tesi baten asmorik ez nuen. Nota denak pilatu eta kito.

Zer eman dio Arantzazuk Joxe Azurmendiri? Eta kendu?

Kendu, ezer ez, nik dakidanik. Eman, dena. Txikiaren eta pobreaken maitasuna, diferentearen errespetua, adaptatzen jakitea, artearen zaletasuna, etab., etab., bizitzan gidatu eta poztu nauten balioak Arantzazuk eman dizkit. Intelektualki ere, ia dena berari zor diot: ikasten irakatsi dit, dudatzen eta bila jarraitzen, pentsamendu diferenteak kontrastatzen, denetarik irakurtzen. Nire garaiko Arantzazu unibertsitate zinez plurala izan

da. Batez ere han sartu nintzen Jakineko eki-
poan, hori erabakiorra izan da nire bizitzan
eta obran.

Eta gaixotasunak, ezer eman dizu?

Nahikoa lan! Ni naturalistegia naiz, oinazeak
nik ezin izan ditut espiritualizatu. Bi urte luze,
eta medikuek diotenez oraindik hilabete eta
hilbeteetan gaixotasunarekin bizitzeko. "Pa-
sako da," esango zuen gure amak. Pasako da.

Arantzazun ahurguneak dira nagusi, in- gurunean, basilika barruan, arkupetan, apostoluetan... Oteizaren hitzetan, espa- zioa hutsik. Jainkoa isiltasunetan mintzo al da, hutsunetan?

Bai eta ez, hori Oteiza da. Niretzat Arantzazun
Jainkoa edo dena delakoa, Euskal Herriaren
fedea, Andre Mariaren eta agerpenaren mi-
toan mintzo da. Hor nahi haina isiltasun ere
badago, sartzea besterik ez dago Basilikan.
Baina Arantzazu ezin da txoko arkitektoniko
modernora eta Oteizaren eskulturetara mu-
rriztu. Arantzazun, arkitekturaz aparte, Natura
ikaragarri bat dago, zabal-zabal, mendi eta
trokaz, bidez, artzantzaz eta giza lanez, histo-
riaz eta istorioz, herri-kantaz bete-betea.


San Frantziskoren begietan ordea, mun- dua bera zen Jainkoaren adierazle. Gan- diaga bezala, munduaren entzule bihurtu behar? Gutxienez entzuten ikasi behar (munduari eta besteari, agian)?

San Bonabenturaren pentsamendua da
mundua eskala bat dela Jainkoagana. Zer
Jainkorengana, ordea? Gandiagak Arantza-
zuko bide eta parajeetan praktikatu egin du
pentsamendu frantziskotar hori eta horri for-
ma poetikoa eman. Horrela Gandiagak beste
Jainko bat eman digu, Naturearekin bategina,
edo beste begi batzuk Jainkoa sumatzeko.
Jainkoaren mito berri bat. Arantzazuren mito
berri bat. Dena den, razionalismoaren pode-
rriotan hainbeste desprestijiatu dugu mitoa,
askori mintzaira mitikoa zer den ulertzen
hastea komeniko zaio apika, askatasun inte-
lektuala lortzeko ere.

Arantzazuko fraideekin zer nolako harre- mana izaten segitzen duzu?

Haienganako nik sentitzen dudana mundu-
ko sinpatiarik handiena eta esker ona da. Ba-
teaz ere esker ona.

Eskerrik asko zuri, Joxe, bihotzez.



Arantzazu me ha dado todo: amor a lo
pequeño y pobre, respeto al diferente,
capacidad de adaptación, afición por el
arte. Intelectualmente, también se lo debo
casi todo: me enseñó a aprender, a dudar
y seguir buscando, a contrastar, a leer de
todo. Arantzazu fue para mi una universi-
dad plural. Eso fue clave en mi vida y en mi
obra. Lo que siento hoy por los frailes de
Arantzazu es la mayor simpatía del mundo
y sobre todo, agradecimiento.

Perdón y arrepentimiento que “se hacen”

Xabier Etxeberria

Barkamena eta damua, esan gabe, ekintza bidez adierazten dira Ebanjelioko pasarte askotan. Modu diskretuan eta delikadeza handiz. Bai seme galduaren parabolan, baina baita ardi galduaren pasarteetan edo Zakeorenean ere. Jesusek ez du esplizituki “barkatzen”. Ez dago, bere aldetik, esijentziarik, ezta kontu hartzerik ere. Soilik harrera beroa eta maitasun diskretua. Eta beti, poza.

Adelanté al comentar la parábola del hijo pródigo que el padre perdonaba con delicadeza, con discreción. “Hacía” el perdón sin decirlo. Delicadeza similar tiene Jesús ante la mujer condenada por adulterio. En el evangelio, tal actitud, también referida al arrepentimiento, es algo común. Dada su relevancia para la autenticidad de ambos, conviene insistir en ella a través de otros textos.

La oveja perdida

Es una pequeña parábola que está en Mateo (18,10-14) y en Lucas (15,1-7). Tienen un enfoque diferente: en el primero la oveja perdida representa al pequeño extraviado y en el segundo, más rico en detalles, al pecador. Tomo aquí, por eso, la versión de Lucas.

Jesús, con el relato, responde a las acusaciones que se le hacen de que “anda con pecadores y come con ellos”. No solo no se disculpa, sino que convoca a todos a hacer lo mismo. Invita a que nos comportemos como el pastor que, teniendo cien ovejas, si se le pierde una, deja las noventa y nueve para buscar a la extraviada. No parece una decisión prudente, pero es la que Jesús, provocador una vez

más, propone. Y cuando la encuentra, añade, la carga sobre sus hombros, la lleva a casa y convoca a todos para compartir su gran alegría. Los “perdidos”, los socialmente marginados por las leyes de pureza que él rechaza, son su preferencia.

El perdón, formalmente, ni aparece. La falta tiene la forma de extravío, en el que la responsabilidad puede adquirir mil matices. Ante él, hay compasión, búsqueda. Y en el encuentro no hay recriminaciones ni exigencias. Solo acogida cálida e intensa que se hace cargo de la fragilidad de quien se extravió (“la echa sobre sus hombros”). Incondicionalidad de nuevo. Y, conviene añadir, delicadeza extrema del amor.

Zaqueo

Hice ya referencia a él, pero ahora resaltaré esta otra perspectiva (Lc 19,1-9). Jesús no le ofrece expresamente el perdón, no se lo menciona; *se comporta* con él como con alguien ya perdonado. Le dice por eso: me quiero alojar en tu casa (con todo lo que ello significa en esa sociedad, recordemos). Zaqueo, a su vez, impactado por la llamada de Jesús y

Barkamena eskaintzen dugunean, garrantzitsua da, apaltasunetik egitea. Ja-kinda, geuk ere behar dugula, beharko dugula inoiz besteren batek barkatzea. Autosufizientziarik gabeko barkamen hori ekintza bihurtzen da askotan, hitzik gabe, ez bada, barkamena jaso duen pertsonak propio eskatu digulako. Damuarekin ere berdintsu. Benetan damu den pertsonak bereizi egin behako du zer esan edo egin zauriak sendatzeko. Badu garrantzia lehen urratsa nork egiten duen, baina miraria gertatzen da, damuak eta barkamenak bat egiten dutenean. Eta mina poz bihurtzen denean.

“muy contento” –detalla Lucas- tampoco explicita formalmente el arrepentimiento: se comporta como arrepentido, dando la mitad de sus bienes a los pobres y devolviendo cuatro veces lo robado. Jesús acaba atestando que ha llegado la salvación a la casa de Zaqueo, “que también es hijo de Abraham” –inclusión frente a marginación-, que se ha colmado la salvación “de quien estaba perdido” (conexión con la oveja extraviada a la que se echa sobre los hombros). Una vez más, delicadeza con otros matices. Y siempre alegría.

Sobre la delicadeza de perdón y arrepentimiento

En quien ofrece perdón, es importante que lo haga desde la humildad, desde la conciencia de que también él ha necesitado, necesitará ser perdonado, porque tiene fallos, limitaciones, culpas, y porque anhela que, en esas circunstancias, le ofrezcan el perdón. Esta humildad es el mejor antídoto contra las desviaciones paternalistas y soberbias del ofrecimiento de perdón; las que suponen modalidades que dañan, que provocan rechazo. En cambio, el perdón con humildad, con no autosuficiencia, incluso cuando expresa que lo malo que se perdona fue malo, acaba mostrándose siempre como acogida. Pues bien,

en muchas ocasiones, un perdón así ofrecido, espontáneamente emerge como perdón que no se dice, que se hace. Si acaba diciéndose es porque se percibe que la persona perdonada lo necesita, necesita escuchar que se le perdona, lo pide expresamente.

En cuanto al arrepentimiento, quien se arrepiente honestamente discierne cómo decirlo-hacerlo en función de la persona a la que hizo daño, en vistas a repararlo, a colaborar en la sanación de su herida. En unas ocasiones, lo acertado será decirselo espontáneamente, pidiéndole además explícitamente perdón, el mejor antídoto contra el orgullo. En otras, lo conveniente será expresarle el dolor que siente por lo que le hizo. Siempre, lo necesario será mostrarle con obras –con su contenido y con el modo de hacerlas- que se ha arrepentido. A veces, será esto únicamente lo que conviene explicitar, en formas tales que en las obras se intuya todo. De nuevo, delicadeza.

En esta cuestión es también relevante quién toma la iniciativa primera: si quien ofrece perdón o quien lo solicita desde su arrepentimiento. El milagro, en cualquier caso, se produce cuando se da la imbricación. Milagro que, atravesando el dolor, acaba en gozo.

Confiar

Txetxu Ausín

Konfiantzak esan nahi du, seguru eta lasai egotea, norbaitek edo zerbaitek ondo funtzionatuko duelako. Gauzak espero bezala joango direlako. Konfiantzarik gabe ez dago gizarte bizitzarik, baina gaur, sekulako konfiantza krisia bizi dugu. Herritarrak ez dira politikoez fio, ezta gurasoak irakasleetaz ere. Deskonfiantza orokortu da. Deskonfiantzak, errezeloa eta beldurra dakartza eta horrek, ziurgabetasun handiko garai honetan, izua eragiten du. Gizartea gainbeheran eta dena hondoratzen joango balitz bezala.

